

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta eusten dioten talde parlamentarioek etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeko Foru Lege-proposamena aurkeztu dute

Beste hainbat neurriren artean, hileko prestazioa bermatuko du gazteen emantzipazioa errazteko, eta adin txikikoak dituzten familientzako beste prestazio bat, errenta muga batekin

Asteartea, 2018.eko urriak 23

Aurkezpen ekitaldian izan dira, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrarekin batera, Isabel Aranburu (Geroa Bai), Asunción Fernández de Garaialde (EH- Bildu Nafarroa), Mikel Buil (Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai) eta José Miguel Nuin (Izquierda-Ezkerra)

parlamentarioak. Agerraldian, aurkeztutako legegintza arloko ekimenaren garrantzia nabarmendu dute, izan ere, Lege-proposamen honi esker, [Nafarroako Foru Komunitatea "etxebizitzarako eskubide subjektiboa"](#) aurreikusten duten autonomia-erkidego gutxietako bat izango da. Horren arabera, baldintzak betetzen dituen Nafarroako edozein herritarrek etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea izanen du, eta lehendabiziko aldiz, berez eskatzeko moduko oinarritzko eskubidetzat jotzen da.

Alokatzeko etxebizitzaren parke publikoarekin egungo beharrak estaltzeko aukerarik ez dagoela kontuan harturik, aurkeztutako proiektuak, prestazio ekonomiko bermatua ezarri du horren ordez, eta laguntza hori errentaren gaineko zerga negatibo gisa emango da, kuota diferentzialaren gaineko kenkari gisa alegia. Prestazioak bi modalitate izanen ditu:

"EmanZipa" deritzon programa, 23 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako prestazio bermatua da, hiru urteko gehienezko iraupena duena, ondoz ondoko hiru urte egin beharrik gabe. Laguntzaren zenbatekoak etxebizitzaren hileko alokairuaren % 50 estaliko du, hileko 250 euroko gehienezko mugarekin, baldin eta etxebizitzaren alokairua hileko 650 eurotik gorakoa ez bada.

Laguntza honetaz baliatzeko eskubidea izanen dute urteko diru-sarrerak 20.000 eurotik gorakoak ez dituzten gazteek, edota gehienez



Ezkerretik eskuinera, Mikel Buil, Asunción Fernández de Garaialde, Laparra lehendakariordea, Isabel Aranburu eta José Miguel Nuin.

30.000 euroko diru-sarrerak dituztenek, bi pertsona edo gehiago bizi diren etxebizitzaren kasuan.

Behin laguntza onartuta, ordainketa hiru hilero egingo da, errenta ordaindu izanaren banku-egiaztagiriak aurkeztu ondoren. Prestazioa urtero berrituko da, baldintzak betetzen jarraitzekotan.

“DaVId” izeneko bigarren programa, kide kopuruaren arabera diru-sarrera jakin batzuk gainditzen ez dituzten familiei zuzendutako prestazioa da. Laguntza hileko 300, 250 edo 200 eurokoa izanen da errenta erabilgarriaren arabera, alokairuaren % 50eko muga gainditu gabe.

Zenbatekoa kalkulatzeko, egungo Askotariko Ondorioak dituen Errentaren Adierazle Publikoa (IPREM) baino handiagoa den errenta adierazle berri bat ezarri da, SARA (Errenta Egokiaren arabera Erostea Nahikotasuna) deritzona. Diru-sarrera haztatuak SARA halako 1,7 baino txikiagoak dituzten familiek izanen dute prestazio hau jasotzeko eskubidea. Zenbatekoak hileko 300 eurokoak izanen dira SARA baino diru-sarrera txikiagoak dituzten familientzat; 250 eurokoak, diru-sarrerak SALA halako 1,4 baino txikiagoak dituztenentzat, eta 200 eurokoak diru-sarrerak SALA halako 1,7 baino txikiagoak dituztenen kasuan. Adierazle berri honek egundoko eguneratzea ekarri du (IPREM 2017= 7.519,59 euro eta SARA 2017= 8.120 euro) eta Nafarroako ekonomiari buruzko datuetan oinarrituko da soil-soilik, Foru Komunitatetik kanpoko faktoreak kontuan hartu gabe. Urteko errentari erreparatuta, lau kide dituen familia-unitate batek prestazioa jasoko luke, urteko diru-sarrerak 22.250,16 eurotik beherakoak izanik.

Laguntza honetaz profitatu ahal izateko, nahitaezkoa da urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean eta gutxienez urtebeteko antzintasunarekin etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan izena emanda egotea.

“EmanZipa” programan bezalaxe, etxebizitzaren alokairua ezin da hileko 650 eurotik gorakoa izan. Kasu honetan, ordainketa hileroko egingo da, errenta ordaindu izanaren banku-egiaztagiriak aurkeztu ondoren. Prestazioa urtero berrituko da, baldintzak betetzen jarraitzekotan.

Bi prestazioez baliatu ahal izateko, nahitaezkoa da etxebizitza babestuen errentamendurako dirulaguntzak jasotzeko indarrean dauden baldintzak betetzea; hala nola, etxebizitza baten jabea ez izatea, azken 5 urteotan etxebizitzarik eskualdatu ez izana (salbuespenak salbu), 90.000 eurotik gorako ondasunak edo eskubideak ez izatea, eta kasu honetan, errentatzailearekiko ahaidetasunik ez izatea gaineratu da, odolkitetasunaren edo ezkontza-ahaidetasunaren bigarren mailaraino.

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa abian jartzeko, eskubide hori pixkanaka-pixkanaka aitortzeko egutegia finkatu da, horretarako behar adinako baliabide ekonomikoak, materialak eta antolaketa arlokoak bildu ahala, baina asmoa legea lehenbailehen onartzea da, eskubide subjektiboa oro har 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean sar dadin.

Aurten, indarrean izanen da gazteei zuzendutako “EmanZipa” programako prestazioa, eta “DaVId” programaren kasuan, adingabeak dituzten familiek laguntza eskatzeko eskubidea izanen dute, 2019ko urtarrilaren 1ean erroldan gutxienez bi urteko antzintasuna baldin badute. 2020an, “DaVId” programa adingabeak dituzten familiengana hedatuko da, 2020ko urtarrilaren 1ean erroldan gutxienez bi urteko antzintasuna izateko baldintzapean. Azkenik, 2021ean, bi programak erabat indarrean eta zabaldua egongo dira.

Egindako kalkuluen arabera, beharrezko inbertsio sozialaren kariaz, zerga-bilketan egungo kenkariei dagokien murrizketa areagotuko da, 9,3 milioi gutxiago bilduz 2019an. Kopuru horretatik, 7,3 milioi “EmanZipa” programari dagozkie eta 2 milioi “DaVId” programari.

Lege berriak dakartzan beste aldaketa batzuk

Legeak beste aldaketa batzuk ere aurreikusi ditu etxebizitzaren funtzio sozialen sakontzeko 22/2016 Foru Legeak jorratutako bideari jarraiki. Besteak beste, honako hauek nabarmen daitezke:

- Etxebizitza babestuak ez dira erabiliko, zatika bada ere, alokairu turistikorako. Horrela, etxebizitza babestua eraikuntzan zuen helbururako erabiliko dela bermatu nahi da, familiek ohiko etxebizitza izateko

duten beharrari erantzunez.

- Familia bakarreko etxebizitzetara ere hedatu da Eraikinak Ebaluatzeko Txostena egiteko beharra, betebeharrari pixkanaka-pixkanaka erantzuteko egutegia ezarriz.

- Aurrerantzean, arau-haustea izanen da habitagarritasun-zedulak ez berritzea, baina momentuz, pertsona juridikoei baizik ez zaie aplikatuko. Hartara, etxebizitzaren habitagarritasunari eustea jabeen erantzukizuna dela ulertzen da, bereziki finantza-erakundeei, enpresei eta etxebizitza ugari duten gainerako entitateei dagokienez.

- Etxebizitza babestuak eskualdatzean Nafarroako Gobernuak balia dezakeen eroslehetasun nahiz atzera egiteko eskubidea errazteko asmoz, etxebizitza-eskatzaile bat erosle potentzial gisa izendatzeko ahalmena eman zaio, etxebizitza hori nagusiki baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei zuzendu ahal izateko.

Horrekin batera, zaharberritze babestuko laguntzak eta politikak Nafarroako eremu desberdinetako eraikuntza, ekonomia zein gizarte beharren arabera planifikatzen eta mailakatzen lagunduko duten tresnak izateko asmoz, urtebeteko gehienezko epean kalte-arriskuan dauden zonaldeen mapa lantzeko beharra ezarri da.

Azkenik, etxebizitza babestuen erosleak babesteko neurri gisa, horien hipoteka-exekuzioak saihestekoa asmoa dago. Nolanahiere, ordainean emateko aukera errazteko asmoz, jabe berriari oro har etxebizitza babestua finkaturiko preziorik gorenean besterentzeko eskubidea aitortu zaio. Bestelako kasuetan, prezio gorena % 50 murriztuko da. Formula honen bitartez, banku-erakundeari ez litzaioke behin ere errentagarri aterako ordainean ematea ez aplikatzea hipoteka-exekuziorik izatekotan.

Eskubide Sozialetako lehendakariordeak arras balorazio positiboa egin du lege proposamenari buruz: “Zenbait helburu uztartzen dituen proiektua da. Gazteen emantzipazioa errazteaz gain, bizitza-proiektu independenteari ekiteko duten gaitasuna hobetu nahi du, eta honek zuzenean eragingo dio jaiotza-tasari”. Horrekin batera argi utzi du, lege honen bitartez, “etxebizitzaren alokairuko gastuei aurre egiteko gauza izango direla bermatu nahi diegula seme-alabak dituzten familiei, eta honek adingabe horien egiazko aukera-berdintasunaren hobekuntza ekarriko du, haurren pobrezia murriztuz. Eta hori guztia modu berritzailean eginen dugu, Espainia osoan parekorik ez duen aurretiaz kobratzeko moduko zerga-kenkari baten bitartez”.

Halaber, Laparraren esanetan, arras positiboa izan da “etxebizitzarako eskubide subjektiboa deritzonaz gain, etxerik gabe gelditu diren familiak zorrak metatzeko arriskutik babestea xede duten beste gai batzuk sartu izana, baita BOEek etxebizitzaren funtzio soziala bene-benetan betetzearen aldeko neurriak eta Nafarroako etxebizitza-parkearen kalitate eta habitagarritasunari eusteko neurriak ere”. “Honekin, Akordio Programatikoa bildutako beste konpromiso bat bete dugula esan dezakegu”, ziurtatu du.